

2012KO EKAINAREN 21EKO BATZAR NAGUSIA: BILERA-AKTA

Bertaratuak:

- Pilar Bilbao Bilbao, Elkarteko lehendakariordea
- Blanca Olabuenaga Goikoetxea, diruzaina
- Asunción Sanchez-Monge Laguna de Rins
- Margarita Domingo y Uriarte, ordezkoko idazkaria.

2012ko ekainaren 21ean, 15:00etan, Vitoria-Gasteizen egin da "EUSKO JAURLARITZAKO ETA OSAKIDETZAKO LANGILEEN ELKARTASUN FONDOA, ZER0,7" elkartearen Batzar Nagusia. Arestian aipatutakoak bertaratu dira honako gai hauek aztertzeko.

Aztergaiak:

1. 2011ko kontuak eta jardueren memoria onartu.
2. Galderak eta eskaerak.

Batzarrari hasiera emateko lehendakariak adierazi du ekitaldia bukatu eta sei hilabeteko epean onura publikoko izaera duten elkarteek dokumentu hauek aurkeztu behar dituztela Elkartearen Erregistroan: aurreko ekitaldiko kontuak eta gauzatu dituzten jardueren memoria; biak ere Batzar Nagusiak ontzat emanda. Horrela ezartzen baitu elkartzeko eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoaren 34. artikulua.

Ondoren, kontuak aurkezten ditu. Ohi bezala, bazkideen kuotek eta kuota horiek sortutako interesek osatzen dituzte diru-sarrerak. Gastuak, aldiz, GKEek aurrera eramaten dituzten proiektuen ordainketak dira, urteroko bozketan bazkideek onartzen dituzten proiektuenak, hain zuzen.

Urteko jarduerak labur-labur komentatu ondoren, botoen kontaketa egin da. Ondoren laburbiltzen dira bozketaren emaitzak.


	Memoria eta kontuak
Baiezkoak	
<i>kopurua</i>	74
<i>% (baliadunak)</i>	100,0
Ezezkoak	
<i>kopurua</i>	0
<i>% (baliadunak)</i>	0,0
Baliadun botoak	74
Baliogabeko botoak	0
Boto zuriak	1
Guztira	75

Beraz, ontzat eman dira 2011ko kontuak eta jardueren memoria, eta Elkarteen Erregistroan aurkeztuko dira.

Bertaratuen eskariz, finantzatzen ari garen proiektuen berri eman da.


Eta beste barik, 16:00ean bukatu da batzarra.

Ordezko idazkaria



Margarita Domingo Uriarte

O.E.Diruzaina



Blanca Olabuenaga Goikoetxea